



**GAZTE DELINKUENTZIA ETA BIGARREN MAILAKO GIZARTERATZE
PROZESUA: HEZKUNTZA FORMALA ETA INFORMALA**

IRAKASGAIA: DELITUAREN ETA ZIGOR KONTROLAREN SOZIOLOGIA

Verónica CHAMORRO ROJAS

Jon GÓMEZ GARMENDIA

Asier GUTIÉRREZ FERNÁNDEZ

Borja ORTIZ DE URBINA CARDEÑOSO

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Ikasketaren teoriak: Portaera deliktiboak ikasiak al dira?. III. Akastun egitura sozialaren teoriak: ikasten dugun hori zerk baldintzatzen du?. IV. Azken hausnarketak.

I. Sarrera

Bizi garen gizartearen baitan, gaur egun sortzen diren arazo ekonomiko, sozial eta afektiboekin batera, delinkuentziak bere zeresana eta garrantzia ere badu. Kasu honetan gazte delinkuentziaren fenomenoaz aztertuko dugu, kriminologian betidanik garrantzia izan duen gaia.

Gazte delinkuentzia, aurreko mendeetan sortu eta mundu osoan zehar hedatu den fenomeno bat izan da, gizartean arazo nagusienetakoa bilakatuz. Hiri industrializatuetako toki urrunetatik hiri handietako auzo pobretara hedatzen da, familia dirudunetatik txiroenetaraino, maila sozial guztietan eta gure zibilizazioaren edozein tokitan. Delitugileak gero eta gazteagoak direla jakinik, ahalik eta azkarren esku hartu behar den arazoa da. Delinkuentzia honen arrazoiak edota hura bultzatzera bideratzen duten faktoreak askotarikoak izan daitezke: pobrezia, gizartearekiko diskriminazioa, arazo psikologikoak, arrazakeria, familia-desegituraketa, ingurune fisikoak ematen dituen aukerak, trebetasun sozial eskasak, etab. Eta aldi berean faktore horien arteko harremanak beti dira konplexuak eta norabide askotarikoak.

Beraz, ulertzen dugu gaur egun delitua burutzeko joerak jatorri bat dutela, jatorri bat non gizarteratze eragileak esku hartu-eman bat duten. Aipatutako faktoreez gain, gazte hauek **jaso duten heziketa** eta lortutako **hezkuntza maila** ere faktore nagusienetarikoa bilakatu dira gazte hauen portaera aztertzerako orduan. Kasu honetan, gazteek bigarren mailako gizarteratze prozesuan zehar burutzen dituzten ikasketa formal eta informalak duten garrantziari erreparatuko diogu, batez ere, hezkuntza sistemaren baitan eta patesia harremanetan ikasitakoak eta transmititutakoak nabarmenduz, baina ahaztu gabe familiarreko harremanetan edo komunikabideen bitartez ere erreferentzia eta eredu sozio-sinboliko garrantzitsuak ere jasotzen direla.



Kriminologia zientzia diziplinartekoa den heinean, teoria soziologikoez bere garrantzia daukate fenomeno desberdinak interpretatzeko orduan. Kasu honetan hezkuntza sistema eta paresiaren eragina gazte delinkuentzian ulertzeko interesgarriak izan daitezkeen teoria soziologiko desberdinak errepasatuko ditugu, batez ere Vázquez González (2003)-en ekarpena erabilita.

Ohartuko gara teoria soziologiko haien barnean interpretazio desberdinak badaudela, horregatik gure helburua haien definizioa zehaztea izango da ikergai dugun testuinguruan, beti hauen alde sendoenak eta ahulenak adieraziz.

II. Ikasketaren teoriak: Portaera deliktiboak ikasiak al dira?

Delinkuentzia azaltzerako orduan oinarri bezala gizabanakoen sozializazio arazoak kokatzen dituzten artean ikasketa teoriak daude. Soziologian “*Gizarteratze desegokiaren teoriak*” barnean kokatzen ditugu. Gazte delinkuentzian modu egoki batean aplikatu daitezkeen teoriak artean honako hauek ikertuko ditugu: ikasketa sozialaren teoria; elkarteratze diferentzialaren teoria; eta subkulturen teoria eta neutralizazio tekniken teoria

Hasteko, **ikasketa sozialaren teoria** dugu Albert Bandura (1925) psikologoak bultzatu zuena. Teoria honen arabera delinkuentzia determinatzaile kognitibo, jarrera determinatzaile eta ingurune determinatzaileen arteko interakzioa da. Aldagai soziologikoak garrantzi ikaragarria dute teoria honetan, pertsona baten jarreraren aldaketak eta pertsonaren izaera azaltzeko orduan. Beraz, autoreak adierazten duen moduan gizakiaren portaeran ezinbesteko papera dute aldagai sozialek. Hauek giza portaeraren garapenean eta aldaketetan eragin handia baitute, baita gizabanakoaren nortasunaren prestakuntzan ere. Ondorioz, ikasketa sozial honek haurtzarotik heldutasunera jarraituko du, gure izaera eta portaerak sortuz, aldatuz eta mantenduz (Vázquez González, 2003: 14).

Beraz, pertsonen sozializazioa aztertu behar da ikusteko zein aldagaiek eragin duten pertsonaren izaeran. Izaera desbideratua hezkuntza sozialaren hasieratik azaltzeko hiru alderdi nagusi daude:

1. Haurrak eredu izan dituen jarrera sozialen ezaugarriak (imitaziozko heziketa).
2. Heziketaren historian izandako gertakizunak.
3. Heziketarako erabilitako metodoak jarrera sozialak aldatzeko.


Orokorrean teoria honekin bat egiten dugu, uste baitugu haurtzaroan izandako esperientziak oso garrantzitsuak izango direla heldutasunean. Hala eta guztiz ere, uste dugu posiblea dela ere horrelakorik ez gertatzea, hau da, txikitatik delituak ikustera ohitzea eta heldua denean deliturik ez burutzeko.

Hori alde batera utzita, uste dugu heziketa oso garrantzitsua dela haurtzarotik, batez ere, haurrek ikusten dutena imitatzeko joera dutelako, beraz, garrantzitsua da modelo sozial egokiak izatea, etorkizunean deliturik ez burutzeko.



Bigarrenik, Edwin Sutherland-ek (1883-1950) sorturiko teoria aipatu beharra dago: **elkarteratze diferentzialaren teoria**. Teoria honen arabera, edozein portaeraren kausa ikasketa dela adierazten da, bai portaera normaletan baita legeak urratzen dituztenetan. Hau da, gizartean beste pertsonekin egunero kontaktuan eta harremanetan bizitzen garen pertsonak garenez, horrek eragiten du bi pertsona desberdinekin erlazionatzeko aukera izatea: alde batetik, errespetuzko pertsonekin harremanetan egotea, legea errespetatzen duten pertsonak alegia, edota bestetik, legeak errespetatzen ez dituzten pertsonekin kontaktuan egotea eta legeak gäinditzeko nahia sustatzen duten pertsonekin harremanetan egotea (Vázquez González, 2003: 15).

Hori dela eta, Sutherland-ek ondorioztatzen du delitugintza edo portaera desbideratuen aurrean jarrera positiboak negatiboak baino gehiago direnean delitugilea bihurtzeko aukerak handitzen direla dela. Izan ere, honen arrazoa da, egoera desberdinei legea hautsiz aurre egiten ikasi duelako gehienbat, legedia errespetatzen baino.



Ondorengo bederatzí proposamenetan erabat islatuta geratzen da Sutherland-en elkarteratze diferentzialaren teoria:

1. Jarrera kriminalak ikasi egiten da eta ez da zerbait biologikoa.
2. Jarrera kriminala ikasi egiten da beste pertsonekin izaten dugun prozesu komunikatiboen bitartez.
3. Jarrera kriminalaren ikasketaren funtsezko zatia, pertsona estuekin ematen da.
4. Jarrera kriminalak ikasi egiten denean, ikasketak barne hartzen du krimena burutzeko teknikak ikasteak.
5. Inpultsoen eta arrazoiaren berariazko norabidea, lege arau definizioen bitartez ikasi egiten da, nabiz eta, onuragarria edo kaltegarria izan.
6. Pertsona bat delitugile bilakatzen da, legea arauen kontrako definizio kaltegarri gehiago eskuratzen dituelako, legea arauen kontrako definizio onuragarri gehiago baino.
7. Elkarteratze diferentzialak, maiztasunean, iraupenean, intentsitatean eta lehentasunean aldatu dezake.
8. Jarrera kriminalaren ikasketa prozesua, edozein ikasketa prozesuren mekanismo berdinak jarraitzen ditu.
9. Nabiz eta jarrera kriminala beharren eta balio orokorren adierazpena izan, arrazoi eta behar orokorrak ez dute jarrera kriminala adierazten.”

(Vázquez González, 2003: 15-16).

Beraz, talde delitugile batekin harremana izatea edo harreman eza da gakoa. Gazteetan koadrilekin edo lagunekin izaten den erlazioa oso garrantzitsua da bigarren



mailako sozializazioan oinarrituz. Gure bidea erabakitzerako orduan faktore garrantzitsua bihurtzen da, ondorioz portaera deliktiboak burutzera bideratu gaitzke.

Hori horrela, delinkuentzia sozialki ikasia eta sozialki hedatua den fenomeno da Shuterland-en arabera. Gure iritziz egia da. Hau da, delinkuentzia ez da portaera irrazional bat, zoriaren ondorioz sortutako zerbait, ikasitako zerbait da; delitugile bat ikasiz sor daiteke. Ondorioz, portaera kriminalak ez dira gurasoengandik eratortzen den gene baten ondorio, hau da, ez ginateke jaiotzetik delitugile izango, baizik eta, erlazio estuen bitartez ikasten den fenomeno da.


Erabat ados gaude adierazten duenean gazte bat sozializazio prozesu batean murgilduta dagoenean, beraien artean patroi kriminalak, patroi ez kriminalak baino denbora luzeagoan mantentzen badira -modu intentsu batean- gizabanako horren jarrera kriminal batean murgilduko dela. Edota beste modu batean esanda, portaera baten aurrean lortzen dugun erantzunaren arabera jardungo dugula. Hau da, gure portaeraren aurrean erantzun positiboak lortzen baditugu portaera hori errepikatzeko joera izango dugu. Adibide bat jartzearen, gazte batek lapurreta bat burutzen badu eta bere inguruko pertsonak, kasu honetan lagunak, portaera hori saritzen badute normala da pertsona horrek portaera deliktiboa errepikatzeko joera izatea, errefortzu positiboa lortu baitu lagunak eskutik. Bestalde, gazte batek lapurtzen badu eta bere lagunak portaera hori kritikatzeko badute normala da pertsona konturatzea portaera hori zerbait negatiboa dela eta, beraz, konpondu beharreko ekintza.

Askotan entzun izan dugu gure inguruan pertsona batek egun batetik bestera bere portaera nahiz jarrera erabat aldatu izanaz: pertsona lasai bat izatetik, erabat ganberro bat bilakatzea. Normalean, horrelako egoeren aurrean, ondorengo esaldia entzutea ohiko izaten da: *“itxura txarreko pertsonekin elkartzen da”*. Gertatu daiteke, erreferentzia talde modura delituak burutzen beste pertsona edo taldeak hartzea eta egun askoren zehar euren portaerak eta jarrerak ikusterakoan, modu batean edo bestean, jarrera horiek ikastea eta haiek geureganatzea. Ondorioz, bai eragin dezakeela guregan delituzko portaerak burutzera, baina hala eta guztiz ere, esan beharra dago, jokabide kriminaletara ikusgai dauden gizabanakoek ez dituztela beti delituak burutzen.

Baina bestalde, teoria honek gabezi batzuk izan ditzake zeren eta nahiz eta portaera deliktibo baten aurrean erantzun negatibo bat izan beste faktore batzuk egon daitezke pertsona horren baitan portaera deliktibo hori burutzen jarraitzeko, hala nola, faktore psikologikoak (autoestimu baxua, frustrazioa...). Beraz, portaera baten aurrean lortzen diren erantzunak edo erreakzioak nahiz eta oso garrantzitsuak izan, ez dira guztiz determinatzaileak zeren eta beste hainbat faktore egon ahal dira bai psikologikoak, bai txikitatik ikasitako portaera izatea eta, beraz, pasesiaren erantzun negatiboen bidez konpontzea zaila izatea.




Hirugarrenik, **subkulturen teoria** aztertuz, Albert Cohen (1895-1981) adituak, jokaera deliktiboen jatorria gizabanakoen egokitzapen arazoetan oinarritua dagoela adierazi zuen, bereziki hauek arazo hauei aurre egiteko hartu duten bidean. Honekin batera, gizarteratzerako orduan erreferentzia taldearen falta azpimarratu zuen. Normalean “erreferentzia taldearen” bideari begiratzen zaio arazoak konpondu nahian, baina suertatu daiteke hauek ez egokitzea pertsonarengan, ondorioz kanpo taldeetara jotzen da. Beraz, arazoak gertatuko lirateke pertsonak gizarteratzerako momentuan aukera desbideratuak erabiltzen dituztenean, aukera horien hautaketa erreferentzia taldeetan oinarrituta egonik. (Vázquez González, 2003: 17).



Kontuan izan behar da klase erdiko balore eta arauak oso garrantzitsuak direla, hauen arabera klase baxukoek ere jokatzen dutelako aukera gutxiago izanik. Klase erdiko edo altuko aukera berdinak ez izatean gazteen helburuan eta aukera errealen arteko arazoa sortzen da eta honek tentsioa sortzen du klase baxuko gazteengan. Hori dela eta, gazte hauek arazoak konpontzeko haien egoera berdinean dauden kanpo talde berriekin izango dituztela harremanak, eta subkulturak sortu. Subkultura horietan balore batzuk ezartzen dituzte onarpen sozialaren arazoari erantzuna emateko bidea bezala ulertuz. (Vázquez González, 2003: 17).

“*Laburbilduz, egokitzapen eta onarpen sozialik gabeko gazteak hiru aukera ditu:*

1. *Klase erdiko gazteekin lehiatzea eremu kulturean nabiz eta gutxiagotasun egoeran egon.*
2. *Kaleko gazteen kulturaren barneratzea, bakoitzaren helburuak alde batera utziz.*
3. *Subkultura delitugile batean barneratzea.*” (Vázquez González, 2003: 17)





Subkultura delitugile hauek 5 ezaugarri nagusi dituzte:

1. Ez erabilgarria: Burututako delituak ez dute onura ekonomikorik bilatzen baizik eta bestelako helburuak dituzte poztasuna lortzeko.
2. Maltzurra: Jarrera horien helburu nagusia kalteak eta arazoak sortzen da.
3. Negatiboa: Klase erdiko arau eta baloreen polaritate negatiboa ematen da. Hau da, klase erdiko baloreen guttiz aurkako baloreak izaten dituzte.
4. Berehalako hedonismoa: Ez dituzte epe luzerako helburuak finkatzen. Egongarri gutxiko gazteak dira, klase erdiko gazteen delinkuentzian gertatzen den gauza bera.
5. Autonomia: Subkultura baten partaideak haien jarreraren kontrol osoari oposatzen dira talde kanpotik etortzen bada oposatze hori. Gainerakoen autoritateari ez ikusiarena egiten diote. (Vázquez González, 2003: 18)

Teoria honek badu bere aplikagarritasuna eskolaren testuinguruan, batez ere kontuan hartzen bada klase baxuko gazteek klase erdiko gazteen moduekin ebaluatzen direla, aukera gutxiago izanik nagusitzeko. Klase baxuko gazteen eskola errendimendu txarrak delinkuentzia joerekin erlazionatua agertzen da, izan ere eskolan emaitza txarrak jasotzea, eskolan ezarritako gizartearen baloreen eta gazteen baloreen arteko gatazkaren emaitza modura ulertu daitezkeelako. Egoera honek sortutako frustrazioa gutxitzeko subkulturak sortzen dituzte. Beraz, esan genezake gure gizartearen izaera baztertzailak subkulturak errazten dituela.

Arazo honen jatorria, laburbilduz, gizarte klase desberdinen arteko egoera desorekatuan oinarritzen da. Gizartean nagusi diren eta goraiatzen diren estatus eta egoeretara ez iristeak baliabide ekonomiko, kulturalak edo hezkuntza balore faltengatik frustrazio egoera sortzen da gazteengan, eta beste biderik ez dutenez subkulturetara jotzen dute (Vázquez González, 2003: 17-18)

Baina gure aburuz, teoria honek ez ditu elementu guztiak kontuan hartzen. Ados gaude Cohenek esaten duenean klase baxuko gazteak klase altuko gazteak dituzten aukera berdinak ez dituztela. Baina ez dugu uste subkulturetan dauden gazteak soilik klase baxukoak direnik. Subkultura baten parte izateko hainbat arrazoi egon daitezke, ez da zertan izan behar “*american dream*” hori lortzeko aukerak ez izateagatik, izan ere, gertatu daiteke etxe “normal” batean hezia izatea, inolako arazorik gabe, baina adibidez, gazte kopuru txikia dagoen auzo batean bizitzeak eta hori dela eta subkultura batekin harremanetan egotea. Hala eta guztiz ere, klase baxuko gaztea izateak erraztasunak eman ditzakeela subkultura baten parte izateko, baina ez da hori aldagai bakarra. Teoria honekin bat eginez, uste dugu nahiko “normala” dela antzeko arazoak, edo gabezi berdinak dituzten gazteak biltzea eta talde berriak sortzea, izan ere, gazte hauek nahiko profil antzekoa izaten dute, baina bestelako aldagaiak kontuan hartu beharko lirateke (familiaren egitura, gazte hauen nortasuna, gazteen desioak etab.)

Uste dugu, subkultura baten kide izateak pertsonarengan zerbaiten parte sentitzea ekar dezakeela eta besteen laguntza izatea, eta bertan datza talde hauen garrantzia. Talde




bereko kideek balore eta ideia berdinak partekatuko dituzte baina balore guzti horiek ez dira zertan gizartearen baloreen guztiz kontrakoak izan behar. Beraz, gizartearen baloreak eta pertsonak dituzten aukerak haien helburuak betetzeko bai garrantzitsuak izango dira, baina bestelako hainbat faktore aztertu beharko lirateke.

Norabide honetan, beste zenbait ekarpenek zalantzan jarri izan dute gazteek balore desberdintasunak direla medio edo desberdintzeko joera bat dela eta jotzen dutenik delitugintzara. Horien artean **neutralizazio teknikien teoria** daukagu. David Matza (1930) eta Gresham Sykesek (1922) hasiera batean Bandurak aipaturiko “ikasketa soziala” oso sinplea zela kritikatu ondoren, gazte delinkuentzia “orden sozial nagusienean” oinarriturik zegoela aldarrikatu zuten, baita esanez gazte delitugileak ez zirela beste gazteekin konparatuz desberdinak. (Vázquez González, 2003: 20)

Adierazten dute gazte delitugileak orokorrean orden sozialarekin bat daudela, gehienetan modu zibiko batean portatzen direlarik. Beraz, delitugintza bizi eredu bat izango da bakarrik oso pertsona gutxientzat. Adierazten dute ere portaera deliktiboak, batez ere, haurtzaro eta heldutasunaren arteko epean gertatzen direla, talde sozialaren onarpena garrantzitsua kontsideratzen denean. (Vázquez González, 2003: 20)

Autoreek aldarrikatzen dute neutralizazio teknikak balio izaten dutela batez ere legearen kontrako portaeren aurrean, norbanakoa justifikatzeko erabiliak baitira, erru sentimendua urrunarazteko. Beraz legea interpretatzeko modu desberdinak sortarazi daitezke hauen ustetan, hitz eta esaldi desberdinen bitartez adierazten direnak eta ekintza edo portaera desberdinen justifikazioa bilatzen dutenak. (Vázquez González, 2003: 21)



Gazteengan legearen aurkako portaerak izan dezaketen justifikazioak zehaztu egin zituzten aipaturiko autoreek:

1. Erantzukizuna ukatzea: Delituak burutzen dituzte kanpo faktoreengatik (alkohola, lagun txarrak...)
2. Mina ukatzea: ekintzagatik ezer eta inor mindua atera dela adierazten dute. Biktima zuzen batean ez dagoenean gertatzen da.
3. Biktima ukatzea: pertsona baten kontra delitua egiten denean baina delitugilea bera biktima sentitzen denean.
4. Salatzen dutenen zigorra: autoritatea ukatzen dute, hala nola, epaileak, gurasoak, etab.



- 5 Leialtasuna: askok adierazten dute lagunen edo taldearen leialtasuna edozein eskaera sozialaren gainetik dagoela.” (Vázquez González, 2003: 21-22)

Gure egunerokotasunean erabiltzen dugun teknika bat dela esan dezakegu. Gure burua babesteko pizten dugun defentsa mekanismo baten funtzionamendua izango luke eta normala izan daiteke portaera negatibo baten aurrean gure burua babesteko portaera hori justifikatzen saiatzea, ondo dagoela pentsatzea eta, horrela, gure bizitzan aurrera egitea kontzientzia garbia izanik.

Baina gure portatzeko moduan ez du bakarrik gure buruak edo kontzientziak lan egiten, inguruneko beste pertsona eta taldeek ere eragin oso indartsua izan dezaketelako gure jarrera eta portaeren eboluzioan.. Beraz, nahiz eta gazte batek neutralizazio teknikak aurrera eroan, bere lagunek edota irakasleek portaera hori zigortzen badute posiblea da jarrera hori aldatzea, kontrol sozial informala oso indartsua baita.


III. Akastun egitura sozialaren teoriak: ikasten dugun hori zerk baldintzatzen du?

Atal honetan soziologiaren beste ikuspuntu multzo bat jorratuko dugu: *akastun egitura sozialaren teoriak*. Erakunde sozialen ezegonkortasunean oinarritzen da delinkuentziaren jatorri nagusia teoria hauen ustetan (Vázquez González, 2003: 22). Delinkuentziaren fenomenoan paresia eta hezkuntza sistemaren eragina aztertzeke erabilgarriak diren bi teoria aztertuko ditugu: tentsio edo frustrazioaren teoria eta kontrolaren teoria.

Tentsio edo frustrazioaren teoriarekin hasiz, Robert Agnew-ek (1953), aspirazio eta lorpenetatik haratago, adierazten du “harreman negatiboak, estimulu mingarriak eta bizitza gertakari estresanteek delitugintza pizten dutela”. Hauek haserrea edo frustrazioa sorturazi dezakete . 3zentzu ezberdinetan (Vázquez González, 2003: 28):

1. Helburuak edo helmugak lortzeko hutsegiteak. Gazteentzako garrantzitsua den ekintza batean hutsegiteak autoestimua gutxitu ahal du, haien portaeran aldaketa bat sortuz.
2. Aurreko lorpenak ukatzea edo ezabatzea. Hala nola, eskolaz aldatzea, bikotearekin apurtzea...
3. Mingarriak diren estimuluaren aurrean egotea. Adibidez, abusu sexualak, beste umeen aurrean barregarri uztea...

Beraz, frustrazio hau gertatzen da norbanakoa nahi edo behar duen moduan tratatua ez denean.. Delitugintza erabiliko litzateke frustrazio honi aurre egiteko. (Vázquez González, 2003: 28)





Normala da gertakizun negatiboen aurrean gure buruarekin eta kanpo munduarekin haserretzea. Haserre horren erantzun bat delitua izan daiteke, haserre hori kanporatzeko modua baita. Beraz, gazte batek portaera negatibo bat jaso badu, batez ere haurtzaroan, delitugintzan murgiltzea erraza izan ahal da. Frustrazio hauek bizitzea psikologikoki nahasteak pairatzeko ere bide bat izan daiteke, hala nola, portaera nahaste antisoziala. Beraz, ikusi dezakegu gure bizitzan ditugun gertaera estresante eta kaltegarriek gure portaeretan asko eragiten dutela, depresioa izan daiteke erantzun bat baina baita ere delitua.


Bestetik, **kontrol edo errotze sozialaren teoria** daukagu, Travis Hirschi (1969-1995) sorturiko teoria hain zuzen ere. Teoria honen arabera, bi motatako kontrol mota desberdindu behar dira: alde batetik, gizabanakoaren kanpotik ezarritako kontrola, hau da, “kontrol soziala” bezala definitua eta bestetik, gizabanakoaren eskutik ezarritako kontrola, hau da, “*autrokontrola*” bezala deitua.

Hasteko, kontrol soziala da delituak ez sortzea ahalbidetzen duena. Hirschiren aburuz “*delinkuentzia sortu egiten da gizartearekin ditugun erlazioa hautsi edota abuldu egiten direnean.*” Hirschi, arau sozialen aurrean dugun jarrera azaltzeko, kontrolaren lau aldagai desberdinetan zentratzen da: attachment, commitment, involvement eta belief: (Vázquez González, 2003:29)

1. Attachment (afektua): Maitasunean oinarritutako lotura hau, interakzionismo estuan eta modu jarraituan eginikoan oinarritzen da. Konexio mota honen arabera, gazteek euren gurasoen edota eskola irakasleen eskutik ulertuak izatearen gradua definitzen du. Hau da, gurasoen maitasuna euren seme-alabengan edota euren gurasoek eta irakasleek beraien jarrerak ikuskatzen duten heinean, gazteak euren gurasoekin errespetuzko jarrerak edota eskola hobekiago kokatuta egongo dira.
2. Commitment (konpromisoa): Kasu honetan, gizabanakoaren interes propioak aztertzen duen loturari egiten dio erreferentzia. Hirschirentzat, gizabanakoak ekintza desbideratua burutzen duenean, ekintza horrek dituen onurak eta galerak kalkulatu ditu.
3. Involvement (parte-hartzea): Kontrol sozialaren faktore modura, Hirschirentzat pertsonak legearekin bat datorren bizitza bat aukeratzeko dute, beste modu batean egiteko aukerarik ez dutelako. Hau da, lana, ikastea, edo kirol jarduerak bezalako ekintzak burutu ezker, portaera desbideratua izateko aukera inhibitu egiten dira.
4. Belief (sinesmena): Gizabanakoek autoritatea errespetatzen badute eta gizarteak ezarritako jarraibide moralak onartzen badute, aukera gehiago izango dute delituak burutzeko tentazioak erreprimitzeko.



Autokontrolari (self-control) dagokionez, Michael Gottfredson-ek (1951) eta Travis Hirschi-ek, jarrera kriminalaren azalpen orokorra burutu zuten, Travis Hirschiren garai bateko lanetan oinarrituz. Hori dela eta, gazte delinkuentziarekin loturik, Gottfredsonen eta Hirschiren teorian zentratuz, alde batetik ondorioztatu zuten, krimenaren hazkundera ematen dela nerabezaro garaian eta ondoren, beharpen nabarmen bat ematen dela bizitzako beste epealdietan. Bestetik, adierazi zuten gazte delinkuentzia ez dela erabat desberdina helduek burutzen duten delinkuentziaren konparatu ezker. Beraz, autore hauen ustetan, euren gurasoen eskutik guztiz ongi heziak izan diren gazteak (maitasunaz heziak, erabat gainbegiratuak, portaera txar baten ondoren zigortuak...) beharrezko autokontrola garatuko dute delinkuentziak eskaintzen duen tentazioen aurrean, eta lan egokia burutuko dute eskola, lanean eta hezkuntzan arrakasta izateko. (Vázquez González, 2003: 31)



Gizabanako guztiek, gazteak kasu honetan, euren interes propioa bilatzen saiatzen dira, eta jarrera individual hori plazerraren bilaketaren eta mina saihestearen ondorioz erortzen da. Desira horien kontrolik gabeko bilaketa horrek, beste pertsonak dituzten eskubideekin eta plazerrekin erabateko gatazka bat dakar. Horregatik, beste pertsonen ahalik eta min gutxien egiteko, desira hauen bilaketa egiten denean, talde sozialen eskutik kontrol bat existitzen da, hau da, gurasoen eskutik, komunitateen eskutik eta estatuaren eskutik. Egia da, legearen mekanismoa alde batera utziz, aprobazioa, errespetua eta familiarekiko afektibitatea, lagunak eta irakasleak, gazte bat gizartetik ez desbideratzeko kontrol ezin hobeak diren. Izan ere, gazte horren autokontrol maila igoarazten die, etorkizunean delituak ez burutzeko.

Delituzko portaerak, berehalako gratifikazioa eragiten du delitugilearengan, hala nola, dirua edota mendekua. Baina gratifikazio horrek ez du epe luzean asko irauten eta biktimarengan ondorio negatiboak izan ditzake, nahiz eta, beraiei askotan ez inporta. Ondorioz, pertsona hauek autokontrol baxua duten pertsonak dira. Hau da, gaztea hezten doan heinean, bere zaindarien (gurasoak, familiako edozein kide, lagunak, eskolako irakasleak...) edozein ekintza berekoi edo txarraren ondorioz, zigorra ezartzen diote. Umeei irakasten zaie, euren ekintzak epe luzera izan dezakeen ondorioetan pentsatzen. Beraz, hezten ari den ume edo gazte batek, bere inguruan gizarteratze paper aktibo bat jokatzen ari den zaindaria baldin badu, autokontrol maila altu bat jasotzen du. Baina kasu batzuetan, egoera guztiz desberdina izaten da. Zenbait egoeretan, zaindaria goiztiar hauek ez daude gaztearen edo umearen inguruan. Egoera horrek paper garrantzitsu bat jokatzen du



gure ustez umearen portaeran eta etorkizunean izan dezakeen jarrera kriminalaren inguruan.

Beraz, gizarteratze prozesuak emaitza modura pertsonaren egituratze eta produkzioa bermatzen du, azken batean, gizakiaren humanizazioa bideratzen duelarik. Hori dela eta, gazteek bigarren mailako gizarteratze prozesuan bizi dutenak garrantzia nabarmena dauka delinkuentziara jo ez dezaten, erakundeen funtzionamendua eta bertatik jasotzen den ikasketa formal eta informalak ezinbestekoak baitira arau sozialak barneratu, besteekiko errespetua garatu eta gizarte bizitzan murgildu ahal izateko.

IV. Azken hausnarketak

Dakigunez, gizartearen helburuetariko bat gizakien arteko kohesioa lortzea izango da. Ordena hori lortzeko gizarteratze prozesua izaten da martxan jartzen den mekanismo soziala. Honen bidez gizartean murgiltzeko behar ditugun elementuak jaso egiten ditugu. Beraz, gizarteratzearen bidez pertsonak, gizarte eta kultura zehatz batean bizitzeko prestakuntza jasotzen du.

G. H. Mead-ek (1863-1931) adierazi zuen moduan, jaioberriak bi instintu dituzte, xurgatzea eta negar egitea, beste guztia kultura da. Beraz, gizakiengan ikaskuntza nagusitzen da, eta horren arabera delitugintzaren bidea determinatuko litzateke (Lamo de Espinosa, 1996: 16). Horregatik, esan dezakegu sozializazioa ezinbestekoa dela pertsonarentzat. Honen bidez, gizakia gizarteko partaide bihurtzen da, ezagutza, trebetasun eta arau sozialak barneratuz.

Gazte delitugintzan parsiaren nahiz hezkuntzaren eragina oso garrantzitsuak dira. Alde batetik, lehen mailako gizarteratzea garrantzi ikaragarria izango du bizitzaren hasierako urteetan. Jasotzen dugun hezkuntza informala izango da, baina oso garrantzitsua gure garapenerako. Bertan, identifikazio prozesua gertatzen da eta ni-a gizartean barneratzen da, eta horrekin batera, balore batzuk ikasiko ditugu. Kasu honetan, familia oinarrizko papera izango du, beti eramango dugun elementua izanik, oinarrizko bideak ikusi eta entzun egiten ditugulako.

Bestetik, bigarren mailako gizarteratzea dugu, oso garrantzitsua ere. Bertan, lagunak era informalean eta eskola era formalean parte hartuko dute. Eskolak, hasieran lortutako balore horiek indartu edo aldatuko ditu ezarritako helburu akademiko eta sozialak batzuk betetzera orduan arrakasta izateko. Parekoen bitartez ere gizarteratze prozesuan ezinbestekoak izango diren beste hainbat ikasketa burutuko ditugu, batez ere taldearen baitan gizabanakoen moldaketa eta garapena burutzen delarik

Egia da oinarrizko arauak familiaren bidez barneratu ditugula, baina gizartean eta gizarte horretan dauden pertsonekin murgiltzeko lagunak eta “koadrilak” egongo dira. Hauen bidez, arropa, hizkera, portatzeko moduak edo aisialdia ulertzeko ikuspuntu bat edo beste bat izango dugu, lagun motaren arabera eta, beraz, delitugintzarako bidea bertan sortu



ahal da. Taldeetan onartuak izatearen beharra askotan iritzi propioak lainotu egiten du eta gertatu daiteke delituak burutzea onarpen hori lortzeko, une honetan beraz subkulturen presentzia sortarazi daiteke.

Orain arte arauen inguruan hitz egin dugu, baina hauek nonbaitetik etorri dira, hau da, norbaitek sortu izan behar ditu arau hauek. Arauak, gizarte ekintzaile moraletik datoz. Baina, lagun talde askotan ekintzaile moral propioak egongo dira, moralitate berri, desberdin bat pizten dutenak eta, beraz, gizarte normaltasunetik kanpo dauden baloreak defendatzen dituztenak. Talde hauen kide izateak suposatzen du ekintzaile moral hauen esanak errespetatzea eta, beraz, balore horiekin bat egitea. Talde askoren baloreak legetik kanpo daude eta hauek betetzearen beharra dago talde horretan lortu nahi duten onarpena lortzeko. Beraz, bertan aurkitu dezakegu gazte delitugileen arrazoietakiko bat. Kasu honetan, sistematik kanpo egongo diren gazteak izango dira, zeinen gizarteratze espazioak, hala nola, eskola edo familia porrot egin duten. Orduan, lagun talde batean edo beste batean murgiltzerako delitugintza eta bortizkeria arau bihurtu daitezke. Gainera, kontuan izan behar dugu gazteen inguruan hitz egiten dugula eta, estatistikoki, hauek dira delitu gehiago burutzen dituztenak, helduekin konparatuz. Kasu honetan garrantzi handia du gazteen berezitasunak, hala nola, errebeldia, identitate krisiak, balore barneratze ahula...

Gainera, hezkuntza edo lan gabeziak, auzo marjinal askotan ikusi ahal dugun moduan, eragin handia izan ahal dute. Hauetan gazteek lagunekin aritzen dira, inongo itxaropenik gabe eta ikusten dutenez ez dutela inongo aukerarik etorkizuna aldatzeko delitugintzan aritzeko probabilitate handia dago.

Bestalde, etiketatzeak ere garrantzi handia du. Hau da, pertsonari jarritako etiketa barneratzen da eta ondorioz horrela jokatzeko du. Gertatu daiteke auzo pobre bateko gazte batek, gizarteak berarengandik espero duena ezin duenez bete egun batean denda batera joatea eta zerbait lapurtzea. Kasu horretan gizarte arauen kontrako ekintza bete du. Horren ondorioz, egoera horretan dauden pertsonekin harremanak izaten hasten da. Geroz eta harreman estuagoa izango du pertsona edo lagun talde horrekin eta harreman honengatik etiketa ezarriko zaio eta, beraz, besteek delitugile moduan ikusten badiote delitugile moduan arituko da, etiketa barneratuz. Hori dela eta, behin etiketa bat izanda, etiketa horri lotutako portaera guztiak barneratuko ditu eta honek bere bizitzan dominatzailea izango da. Hemen ere ikusi dezakegu etiketatze teoriarik garrantzitsua, zeren eta askotan taldeak behartzen du delituak burutzea eta ez badira deliturik burutzen etiketatze bat sortuko da, adibidez koldarraren etiketa. Beraz, etiketa hori saihesteko, batez ere mutil nerabe taldeetan, non ausarta izatea garrantzitsua den estatusa mantentzeko, delituak egiten amaitzen dituzte. Gainera, nahiz eta talde horren kide izan baina deliturik ez burutu, talde horren kide izateagatik jada etiketatze hori sortzen da, eta beraz, etiketa horren arabera jarduten da.

Drogak ere oso esanguratsuak dira gazte delitugileen arloan. Dakigunez, nerabezaroan hasten da drogen kontsumoa, hala nola, alkohola edo kannabisa. Alkoholaren kasuan deshinibizioa eta agresibitatea handitzen da eta, beraz, talde batean non alkohola gehienetan kontsumitzen den litekeena da delituak burutzea, batez ere, liskarretan aritzea edota sexu erasoak burutzea. Beste droga kasuetan nahiz eta agresibitate hori ez piztu, hala



nola, kannabisaren kasuan non erlaxazioa batez ere lortzen den, beste delitu batzuk egon ahal dira horren atzean, adibidez, ondarearen kontrako delituak, hala nola, mugikorrek edo diru-zorroak lapurtzea dirua lortzeko eta, horrela, droga erosten jarraitu ahal izateko. Beraz, nahiz eta kasu honetan delituaren oinarria drogak izan, paresia da drogetan murgiltzen duen instituzio nagusia.

Aztertutako teoria guztietatik, uste dugu Bandura eta Shuterlanden teoriak direla erabilgarritasun handiena dutenak gazte delinkuentziaren fenomenoaren inguruan. Izan ere, azpimarratzen dute delituak egitea ikasten dugula bai familiak horrela hezi gaituelako edota ditugun erlazio estuek (delitugileak diren pertsonak) horrelakoak egiten ikusi ditugulako behin eta berriz. Gainera, teoria hauen muinean, oso garrantzitsua izango da gure hurbileko taldeak delituri ez burutzea guk horrelako portaerak ez egiteko. Beraz, ez da kasualitatea bi autore hauen teoriak komuneko aspektuak izatea. Biek azpimarratzen dute gizabanakoa garatzen duten medioek eta nola medio horiek diren delituarekiko jokaerak izatera erabat eragiten diotenak.

Bestetik, uste dugu subkulturen teoriak gauza asko ez dituela kontuan hartzen, eta aukeretan soilik zentratzen dela. Hori dela eta, ez luke hein handi batean gazte delinkuentziaren arazoari erantzungo.

Gure ustez, teoria bat arrakastatsua izateko hainbat elementu kontuan hartu beharko lituzke. Hasteko, familia eta ingurugiroa, izan ere, gure bizitzaren lehenengo urteak oso garrantzitsuak direlako eta bertan ikasten dugulako zer ekintza dauden ondo eta zeintzuk ez. Bigarrenik, bigarren mailako erakundeen inpaktua guregan, hau da, eskola zein lagunek duten eragina. Segun zein nolako lagunak ditugu lapurretan aritu gaitezke edo taberna batean mosto bat edaten. Hortaz, lagunak oso garrantzitsuak izango dira batez ere nerabezaroan. Eta eskolak izan daiteke bide onetik eramaten gaituena gure eskolako helburuak lortzen baditugu satisfazioa ekarriz, edo bide txarretik eramaten gaituena helburuak lortzen ez baditugu frustrazio handia sortuz eta eskola uzteko erraztasunak ekarriz. Eta bukatzeko, pertsona bakoitzaren egoera ere aztertu beharko litzateke, alde batetik delituak burutzeko aukerak eta bestetik euren helburuak betetzeko aukerak. Bi elementu hauen arteko lotura oso garrantzitsua izango da.

Bibliografia

Imaz Bengoetxea, J.I. (ezez.) *“Hezkuntzaren soziologia”* Euskal Herriko Unibertsitatea.

Lamo de Espinosa, E. (1996). *Sociedades de cultura, sociedades de ciencia*. Nobel, Oviedo.

Vázquez González, C. (2003). Teorías criminológicas sobre delincuencia juvenil. En *Delincuencia juvenil. Consideraciones penales y criminológicas* (págs. 63-119). Madrid: Colex.